

O K A

Oka aitatu dot eta, labur labur, zer zan eta zer gertatu jakon azaldu gura neuke. Garai aretan entzute aundikoa zan eta oso polita gainera. 18 etxe, 75 biztanle inguru, etxeen bitartetik erreka aundi bat eta «Edurtzako Ama»ren eleiza polit bat auzunearen erdian. Sei errota ba ziran bostehun metroren barruan. Beerengo egoanak «Ertzile» eukan izena, eta gorengo egoanak «Arbiñe». Etxe au fama aundiko etxea zan. Errota, taberna eta dendako gauzak ere ba eukazan.

Arrobiak ere ba ziran. Etxe-hormak egiteko arri asko ataraten eben. Amaika bagoi bete zan. Trenak bertan eukan bagoi utsak itzi eta beteak artzeko geltokia. Bere ondotik bide barria, goratxoago auzo ikastola, beeruntza «Olatxu goikoa» eta «Olatxu beekoa» izeneko errota bi, beeratxuago eleiza eta «Txuriena» baserria, jarraian okindegia, Tabernatxu, Torrebarri, Soldaduen, Indianoena, Pagoeta goikoa eta beekoa, Anjeltxuena, Beeko errota, Barrentze, Preskuena, Ertzile, Okarena eta Etxetxu.

Benetan polita eta entzutetsua zan Oka, baina, zoritxarrez, nik ogeitairu urte nituela, eurite aundi batek Arbiñeko mendia leer egin eban. Auzo ikastola, Arbiñe baserria... aurrean eroan ebazan. Beeratxoago argi indarra emoten eban zentral txikitxu bat egoan. Au ere non egoan seinalerik itzi barik eroan eban. Ainbat gorabeera eta tratubide erabili eban Arbiñeko baserri ederraren errazturik ere ez eban itzi.

Aitagaz ikustera joan nintzan eta Domingo, Pagoeta baserriko aitita zaarragaz topo egin genduan, eta onela esan euskun:

— Gure Oka ondatu da.

Begi biak malkoz bete jakozan.

Mendiaren jauste ori egun bi aurrerago ezagun

zan. Ondotik joian kaminoa eta bardin trenbidea ere arrakalatu egin ziran. Orduan parte emon eben eta etxe areetatik ainbat lasterren urtetako agindu. Ikara egin eta egun bi iraun ebazan guztiz jausten. Etxeko gauzak atarateko denbora izan eben, naiz eta errota eta beste balioko edo atara ezinezko gauzak bertan itzi.

Oka garai aretan oso polit, alai eta entzutetsua izan bazan ere, uolde arek zearo ondatuta itzi eban. Gaur basamortua dala esan leiteke. Leen 18 etxe ondo beteak baziran, gaur 9 etxetan ez da inor bizi. Leen ikusi ebenak esan leikie Oka zer izan zan, baina gaurkoek ezin leioe antzik emon.

Irakurlea: Jon Enbeita, Muxika